



«Beldurrik gabe» ekin dio Tolosa futbol taldeak 3. Mailari

HASIERA ▶ «Ilusio handiz» ekin zion aurre-denboraldi berriari atzoko saioarekin

FITXAKETAK ▶ Azpiroz, Crespo, Jauregi eta Santamaria fitxatu ditu

HARROBIA ▶ «Harrobiaren aldeko apustua» egin nahi du futbol taldeak ▶ 2

ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS



Erasunentzat «ohore handia» da apustua irabaztea

ZIZURKIL ▶ Duela 15 urte zuen «arantza modukoa» kentzea lortu duela azaldu dio HITZARI ▶ 6

ASTEASU ▶

Jai giroa nagusi azken egunean

Herri kirolak izan zituzten atzo ▶ 4

LEITZALDEA ▶

Txapelketaz txapelketa, aurrera

Errenteriakoan bi mailetan finaletan dira Aurrerako pilotariak ▶ 7

VILLABONA ▶

HITZAK eta Kontseiluak hitzarmena sinatu dute herriko Udalarekin

Hiru urtetarako akordioa hitzartu du HITZAK; urtebeterako, erakundeak ▶ 3



Mendiguren, Tejeria eta Esnaola hitzarmena sinatzen atzo. I.GARCIA

FUTBOLA ▶

«Ez diogu beldurrik izan behar Hirugarren Mailari»

Hirugarren Mailako Tolosa aurkeztu zuten, atzo, Berazubín; «ilusio handiz» ekin diote denboraldi-aurreari, inguruko jokalariez osatutako taldearekin



Hirugarren Mailan ariko diren jokalariek eta teknikoak, atzo, Berazubín, taldearen aurkezpenaren. L. MONTES



J. M. LULUAGA
TOLOSA-KO ENTRENATZAILEA

«Harrobiaren aldeko apustua egin nahi dugu, futbolariak trebatu, minutuak eman, irtenbideak aurkitu»

lazkaotarra. Izan ere, inguruko jokalariekin aritzea bezain garrantzitsua da harrobia zaintzea: «Jazko esperientzia ona errepikatzea pentsatu dugu, eta aurten ere zenbait jokari igo ditugu. Harrobiaren aldeko apustua egin nahi dugu, futbolariak trebatu, minutuak eman, eta haientzat irtenbideak aurkitu».

Talde gaztea izango du beste behin Tolosak. Baina ausardia ez zaio falta izango: «Askorentzat lehendabiziko aldia izango da Hirugarren Mailan, eta ilusio berezia sortzen du horrek. Ez diogu beldurrik izan behar maila berriari. Jokalariei hori transmititzen saiatuko gara». Maila mantentzea du orain helburu Luluagak. Baina, hori lortuta, pausoak ematen jarraitu nahi du: «Maila ziurtatuta dugunean, gero eta gorago egoten saiatu behar dugu. Iaz bezala ariko gara, eta gauzak atzerako direla uste dut».

Taldea aurkeztu eta gero egin zuen lehen entrenamendua, atzo, Hirugarren Mailako Tolosak, eta dagoeneko burubelari murgildu da denboraldi-aurrean. Hilaren 30ean Real hartuko dute urdinek Berazubín; besteak beste, Aurrera, Oberena eta Hernani ere izango dituzte aurkari abuztuan. 28an ekingo diote Ligari —ez dute egutegirik oraindik, eta aurkaria ez dakite, hortaz—. «Faboritorik? Beasain eta Gernika ondo aritu ziren iaz, baina ezuste asko egongo da Ligan».

LEIRE MONTES

«Gogotsu eta ilusio handiz». Hala deskribatu zion HITZARI Tolosa CFko Hirugarren Mailako taldearen entrenatzaile Jose Manuel Luluagak guztien aldartea eta jarrera denboraldi berriari begira. Taldearen aurkezpena egin zuten, atzo, Berazubín.

Aurpegi berriak izango ditu Tolosak maila berrian aritzeko. Baina ez asko. Iker Mujikak, Luis Lasak eta Aiert Pradosek agur esan diote taldeari eta futbolari. Cristian Valor eta Javier Aranguren, berriz, beste taldeetan ariko dira. Ignacio Santamaria atezain donostiarra (Antiguoko-tik), Antxon Azpiroz anoetarra (Lagun Onak), Jon Jauregi tolosarra (Orioko) eta Xabier Crespo ordiziarra (Ordizia) dira jokari berriak.

«Dauden jokalariek mantentzea eta inguruko jendearekin aritzea» du oinarri taldeak, Luluagaren esanetan: «Egin ditugun fitxaketak bajek utzi dizkiguten zuloak estaltzeko izan dira gehienbat. Eta, horietan ere, inguruko jendea ekartzen saiatu gara. Iaz giro bikaina izan genuen aldageletan, eta uste dugu inguruko jendez osatutako taldea izateak asko laguntzen duela giro on hori lortzen eta, ondorioz, eragina ere badu jokoan. Gainera, zaleek gertuago sentitzen dute taldea horrela».

Fitxaketez gain, beheko taldetik igotako jokalariekin osatuko dute Hirugarren Mailakoa: Antxon Arsuaga (atezaina), Gorka Tobias eta Guillermo Zabala berastegiarrak, Mikel Loidi amezketarra, Oier Artola ikaztegiarra eta Eneko Naldaiz

TOLOSA CF HIRUGARREN MAILAN ▶ TALDEA

Beste talde batzuetatik etorritako jokalariek

- ▶ Ignacio Santamaria (atezaina), Antiguoko-tik.
- ▶ Antxon Azpiroz, Lagun Onak-etik.
- ▶ Jon Jauregi, Orioko-tik.
- ▶ Xabier Crespo, Ordizia-tik.

Beheko taldetik igotakoak.

- ▶ Antxon Arsuaga (atezaina).
- ▶ Eneko Naldaiz.
- ▶ Iban Agirrezabala.
- ▶ Oier Artola.
- ▶ Mikel Loidi.
- ▶ Gorka Tobias.
- ▶ Guillermo Zabala.

Taldea osatzen duten

gainontzekoak.

- ▶ Angel Apezetxea.
- ▶ Gorka Goikoetxeandia.
- ▶ Pablo Artola.
- ▶ Patxi Errasti.
- ▶ Xabier Lacalle.
- ▶ Jon Garmendia.
- ▶ Unai Garmendia.
- ▶ Jon Elola.
- ▶ Ekaitz Zuloaga.
- ▶ Joseba Romero.
- ▶ Oinatz Orue.
- ▶ Aritz Doyharzabal.
- ▶ Mikel Aierbe.
- ▶ Jon Regillaga.
- ▶ Gorka Blanco.
- ▶ Aimar Sagastibelza.

- ▶ Iñigo Garagarza.
- ▶ Mikel Illunbe.

Bajak.

- ▶ Iker Mujika.
- ▶ Luis Lasa.
- ▶ Aiert Prados.
- ▶ Cristian Valor.
- ▶ Javier Aranguren.

Talde teknikoak.

- ▶ Entrenatzaileak: Jose Manuel Luluaga, Kepa Mendizabal eta Luis Mendigainen laguntzarekin.
- ▶ Masajista: Javier Fernandez.
- ▶ Delegatua: Jose Mari San Sebastian.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Gaintza (Nafarroa). Baserria salgai. Eraberritzeko. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Lizartza. Egongela, sukaldea, hiru logela eta bi bainugela dituen etxebizitza. Berritua. Kanpoaldera. 34m²ko garajea. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 72 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdialdean. Bi logela eta trasteleku dituen etxebizitza. Berritzeko. 32.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Taberna salgai. Informa zaitez. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Eraikuntza berria. 113 m²-ko etxebizitza paregabea. Trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Hiru logelako etxebizitza. Erdi eraberritua. Igogailua eta trasteleku. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarrik etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Itxaron zerranda dugu.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. HITZAK oporrak hartuko ditu abuztuan. Beraz, hilabete horretan urteak betetzen duen norbait zoriandu nahi baduzu, edo ospakizun baten berri eman, orain duzu aukera argazkia ekarri eta HITZAN argitaratzeko. Anima zaitez!

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. 26 eta 35 urte arteko igeltseroa behar da, 2. mailako ofiziala. Faxbada, estaldura eta aldamio montajearen aditua. Bere autoa duena. 620 800 186 (Josebo).

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

VILLABONA ▶

XXV. Santio Kros herrikoia egingo da hilaren 25ean

ERREDAKZIOA

Zunbeltz elkarteak, Udalak babestuta, aurten ere santiotan kros herrikoia antolatu du. XXV. edizioa izango du Santio Krosak eta uztailaren 25an egingo da. Irteera elkartetik bertatik izango da.

Benjaminak (1996an eta 1997an jaiotakoak) 10:30ean aterako dira eta Zunbeltz inguruko ibilbidean gehienez 1.000 metro egingo dituzte. Alebinek (1994-1995) ere 10:30ean aterako dira eta Zunbeltz inguruko ibilbidean gehienez 1.000 metro egingo dituzte. Infantilak (1992-1993) 11:00etan dute hitzordua eta ibilbide nagusiari, 2,5 kilometrotakoa, bira bat eman beharko diote. Kadetek (1990-1991) ere 11:00etan dute irteera eta ibilbide nagusiari bira bat eman behar diote. Seniorrak eta beteranoak 11:00etan aterako dira eta hiru bira, 7,5 kilometro, emango dizkiote ibilbide nagusiari.

Kategori bakoitzeko lehenengo gizonekoari eta emakumezkoari emango zaizkie sariak, bai sailkapen oro-orean bai herrikoan ere.

Antolakuntzak jakinarazi duenez, ez ditu gerta daitezkeen istripuen ardura bere gain hartuko. Bestalde, antolakuntzak parte-hartzaileei lasterketa baino lehen azterketa medikoa egitea gomendatzen die.

Trafikoari dagokionez, lasterketak irauten duen bitartean, ordu bat gutxi gora behera, kaleak guztiz itxirik egongo dira auto, kamioi eta autobusentzat.

TOLOSA ▶

Argi mozketak egingo ditu Tolargik gaur eta bihar

ERREDAKZIOA

Subestazio berrian egin behar diren egiaztapen lanak direla-eta, gaur eta bihar gauean, argindar mozketak egingo ditu Tolargik. Mozketak 23:00etatik 24:00etara bitartean egingo dira

VILLABONA ▶ EUSKARA

HITZAK eta Kontseiluak hitzarmena sinatu dute Udalarekin

Hiru urtetarako akordioa hitzartu du egunkariak eta urte beterako euskara normalizatzeko xedea duen erakundeak



Xabier Mendiguren, Bakartxo Tejeria eta Enekoitz Esnaola, prentsurrekoaren une batean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAK eta Kontseiluak lankidetzara hitzarmena sinatu zuten atzo Villabonako Udalarekin. Ekitaldian Bakartxo Tejeria Villabonako alkatea, Enekoitz Esnaola Tolosa Herria Hedabideak-eko lehendakaria eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idaz-

kari nagusia izan ziren. HITZARI dagokionez, hiru urtetarako hitzarmena sinatu du Udalarekin eta urte bakoitzean biztanleko hiru euroko diru laguntza emango zaio. Kontseiluari, berriz, 3.000 euroko diru laguntza eman dio urte honetarako.

Bakartxo Tejeria alkateak adierazi zuenez, «Kontseiluari dagokionez Bai Euskarari

Akordioa garatzeko sinatu dugu hitzarmen hau. Euskararen inguruan konpromisoak eskatzen dira eta nik uste lehenengo konpromisoa hartu behar duena Udala bera dela eta ideia horrekin gabilta egunero lanean». Tejeriak gaineratu zuenez euskararen alde ekimen ezberdinak aurrera eramaten ditu Udalak eta Kontsei-

luarekin batera, «euskararen alde egin nahi dugu lan eragin-kortasunez bai Udalak eta bai herritarrek, eta Bai Euskarari Akordio ahal den gehiena zabaldu eta garatu».

Hitzari buruz «egunero prentsa euskaraz gureria iristea» duen garrantzia azaldu zuen eta gaineratu: «Badakigu ez dela erraza, baina autofinantziazioa eskatzen diogu. Halere hor egongo gara laguntzeko, proiektua garatzen doan heinean eta euskararen alde egiten den heinean».

Xabier Mendigurenek hitzarmena bigarren aldiz sinatzeak «normalizazioa» adierazten duela esan zuen. «Lehenengoa pozgarria izaten da hasiera delako, baina bigarrenak ere poza berdina ematen du, adierazten baitu aurretik emandako urratsa egokia zela». Mendigurenek bereziki azpimarratu zuenez, «Villabonako instituzioen eta herrigintzako mugimenduen arteko harreman hau finkatzea oso erudugarritzat hartzen dugu. Eredu honek adierazten du denok elkartuta aurrera egiten badugu, euskarak nahi dugun normalizazio hori lortuko duela».

Enekoitz Esnaolak HITZARENtzako hitzarmena sinatzearen garrantzia azpimarratu zuen, «batetik egonkortasuna ematen diolako proiektuari eta bestetik akordio honen bitartez gizarte ekimenaren lana aitor-tzen delako». Esnaolak adierazi zuenez, «euskarak aurrera egin dezan komunikabideen bidez ere ere euskararen normalizazioaren bidean pausoak eman behar ditugu». Bestalde, Hitzaren asmoa eskualdeko komunikabideen sarean osatzea dela azaldu zuen bere lehendakariak eta etorkizunean eskualdean telebista kateak izatearen aukera baliatzeke xedea erakutsi zuen.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Udalbatzak, 2005eko ekainaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onespene eman zion honako proiektu honi: EZ1 "Laskoraingo Zabaldua" eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, hilaitea bai iragarkiaren azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita jendaurrean jarrita egingo da. Hirigintzako Planeamendu Erregulamenduko 16.11. eta 126 artikuluek eta 1976ko Lurzorru Legearen Testu Bateratuaren 49. eta 40. artikuluek zedutaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Bernia, Tolosaldeko Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-b Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaltzeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2005eko uztailaren 12an
ALKATEA

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Udal Plenoak, 2005eko ekainaren 28n egindako ohiko osoko Bilkuran, honako dokumentu hau tramitean jartzea erabaki zuen: E14 "Leidro" eremuko Arau Subsidiarioen aldaketa aurrerakina.

Planeamendu Araudiko 125. artikuluek xedatutakoaren arabera, aurrerakina HOGEITA HAMAR EGUN jendaurrean jarrita egingo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoia hau da: korporazio, elkarte eta partikularrek edozein iradokizun edo planeamenduko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izatea.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Bernia, Tolosaldeko Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Epe horrek dirauen bitartean, espedientea ikusi eta aztertu nahi duenak eskura izango du Tolosako Udaltzeko Hirigintzako Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B), alegazioak Sarrerara Erregistroan aurkeztu behar dira Tolosako alkateari zuzenduta.

Tolosan, 2005eko uztailaren 11an
ALKATEA

TOLOSako UDALA
LEHIAKETA

Gobernu Batzarrek, 2005eko uztailaren 11n, Leidor Zinema Bimoldatzeko obren 2. fasea egiteko Klausula Administrazioen agiria onartu zuen.

1. Helburua.-Leidor Zinema Bimoldatzeko obren 2. fasea

2. Litzitazioaren zenbatekoa.- 1.926.037,06 € (BEZa barne)

3. Lanak egiteko epea.

Obra hasi behar dira 2005/09/15a baino lehen.

Obra bukatu behar dira 2005/09/15a baino lehen, alegia, kontratatzaileak behin-behineko onarpene eginda eduki behar du egun hori baino lehen.

Obra hau egiten den bitartean, agertokiko ekipamenduko obrak ere egingo dira, baina beste kontratu baten bidez.

4. Espedientea ikusteko.

Copitec (Gudari kalea 8, behe); telefona: 943 65 40 28
Kopibat (Lizardi plaza 2); telefona: 943 65 51 66

5. Behin-behineko fidantza.- 38.520 €.

6. Behin betiko fidantza.- 77.040 €.

7. Empresa-sailkapena:

C TALDEA	C	D KATEGORIA
I TALDEA	5 AZPITALDEA	C KATEGORIA
I TALDEA	6 AZPITALDEA	D KATEGORIA
J TALDEA	2 AZPITALDEA	D KATEGORIA

Kontratastari eskatuko zaio ondorengoetako batean sailkatuta egotea: I taldea, 5 azpitaldea, I taldea, 6 azpitaldea, J taldea, 2 azpitaldea; hura ez badago horietako batean sailkatuta, obra egiteko azpi kontratatzen denak egon beharko du.

8. Eskaintzak egiteko tokia eta epea.-Tolosako Udaltzeko Sarrera Erregistroan, plaza Zaharra, 6-B-n, 2005eko irailaren 5ak eguerdiko ordu bata arte (13:00).

Tolosan, 2005eko uztailaren 11n
ALKATEA

ASTEASU • SANTAMAÑAK

Tranpazulo jaitsi aurrekoak

Santa Marina auzoko jaia atzo bukatu ziren; askotariko ekitaldiak izan dituzte auzoan asteburuan



Bailarakoen arteko herri kirolak egin zituzten atzo eguerdian Asteasuako Santa Marina auzoan; argazkian, bi taldeetako ordezkariek elkarren artean trontzan lehiatzen. I. GARCIA

EROSKI

OPORRETARA NOA EROSKI BIDAIAK-ekin

Sainto-Cambillo-La Pineda	275€
Tenerife	299€
Paris	269€
Amsterdam	474€

633€

EROSKI BIDAIAK-ekin

IRATXE ETXEBESTE

Asteasuako Santa Marina auzoko jaia atzo bukatu ziren; askotariko ekitaldiak izan dituzte auzoan asteburuan. Hain zuzen ere, Tranpazulo jaitsierarekin eman zituzten festa bukatutako asteasuarek atzo gusean.

Nazioarteko deitzen dioten toka txapelketa jokatu zuten, esate baterako, larunbatean. Herriarek jakarrak ez, kanpotik etortzako jende askok ere hartu zuten parte lehiatzen. Andoingo Florenzio Olano eta Maria Socorro senar-emazteek irabazi zituzten lehen bi sariak, eta herriko Carlos Ortiz de Zaratek hirugarrena.

Jaietako ekitaldi nagusiak, hala ere, igandeko utzi zituzten antolatzaileak: Gosean Andazarrateko XXI. Igoera zegoen antolatuta federatu gabeko txirrindularitza, eta egiro ez hobetsu egin zuten parte-hartzaileek lana. Bi taldeetan banatu zituzten txirrindulariak udal ordezkariek. 14 urteko behar-koak bategi, eta 14 urteko gorakoak, bategi. Gasteen artean, Aritz Segurillo izan zen garaile mutiletan, 25 minutu eta 8 segundo behar izan zituen Andazarrateko Igoerako. Haren atzetik sailkatu ziren Aoi Otaegi (24:52ko denborarekin) eta Urko Artzeta (26:29), asteasuarrak, hirurak ere.

14 urteko gorakoan artean, berriz, Imanol Nazabal izan zen azkarren, 15:30eko denborarekin, eta bigarren eta hirugarren postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren, David Urbieta asteasuarra (19:39ko denborarekin) eta Joxe Miguel Saizar (19:42). Emakumezkoetan, azkenik, Iciar Olano eta Nerea Linazasorok zeharkatu zuten helmuga lehendabizi, 31 minutu eta 20 segundo behar izan zituzten biak horretarako, eta saria elkarrekin jaso bazuten ere, nesketan hiruugarren izan zen Maddi Otaegi neskalariari eman zioten, 40 minututan egin zuten Otaegi goera.

Antolatzaileen esanetan, 37 lagun izan ziren gutxira Andazarrateko XXI. Igoeran parte hartu zutenak; hortien artean, urtebeteko bi haurrek, Bixiltxetan, gurasoen atzetaldetan joan ziren biak, eta partaidea bazu (denbora egitea) Joan baziren ere, asko izan ziren Igoera «jai giroan» egin zutenak.

Txirrindularien osteko meza amaitu, herrikiroek, trikitilariak eta bertsoariak hartu zuten lekuko Asteasu, eta arratsaldean V. Zaldi Lasterketa egin zuten. Aizor Mujika zuzkildarra izan zen azkarrena proba horretan, eta 5 puntu eskuratu zituen. Haren atzetik sailkatu ziren Iñaki Izagirre asteasuarra (4 puntuarekin) eta Josu Castañares elgoibartarra (3 puntuarekin). Ligaxararako puntuagarri zen Asteasuako zaldi lasterketa, eta han lortuako emaitzen ostean, Iñaki Izagirre da orain sailkapeneko hiru 12 puntuarekin. Aitor Odrizola oretararako Izagirrek baino lau puntu gutxiago ditu (8 puntu), eta Xabier Lazcano getariarrak proban beste zaldi batekin parte hartu menoz, aurretik zuten 6 puntuak galdu, eta hurrenez hurren, David Urbieta asteasuarra (19:39ko denborarekin) eta Joxe Miguel Saizar (19:42). Emakumezkoetan, azkenik, Iciar Olano eta Nerea Linazasorok zeharkatu zuten helmuga lehendabizi, 31 minutu eta 20 segundo behar izan zituzten biak horretarako, eta saria elkarrekin jaso bazuten ere, nesketan hiruugarren izan zen Maddi Otaegi neskalariari eman zioten, 40 minututan egin zuten Otaegi goera.

Antolatzaileen esanetan, 37 lagun izan ziren gutxira Andazarrateko XXI. Igoeran parte hartu zutenak; hortien artean, urtebeteko bi haurrek, Bixiltxetan, gurasoen atzetaldetan joan ziren biak, eta partaidea bazu (denbora egitea) Joan baziren ere, asko izan ziren Igoera «jai giroan» egin zutenak.

Txirrindularien osteko meza amaitu, herrikiroek, trikitilariak eta bertsoariak hartu zuten lekuko Asteasu, eta arratsaldean V. Zaldi Lasterketa egin zuten. Aizor Mujika zuzkildarra izan zen azkarrena proba horretan, eta 5 puntu eskuratu zituen. Haren atzetik sailkatu ziren Iñaki Izagirre asteasuarra (4 puntuarekin) eta Josu Castañares elgoibartarra (3 puntuarekin). Ligaxararako puntuagarri zen Asteasuako zaldi lasterketa, eta han lortuako emaitzen ostean, Iñaki Izagirre da orain sailkapeneko hiru 12 puntuarekin. Aitor Odrizola oretararako Izagirrek baino lau puntu gutxiago ditu (8 puntu), eta Xabier Lazcano getariarrak proban beste zaldi batekin parte hartu menoz, aurretik zuten 6 puntuak galdu, eta hurrenez hurren, David Urbieta asteasuarra (19:39ko denborarekin) eta Joxe Miguel Saizar (19:42). Emakumezkoetan, azkenik, Iciar Olano eta Nerea Linazasorok zeharkatu zuten helmuga lehendabizi, 31 minutu eta 20 segundo behar izan zituzten biak horretarako, eta saria elkarrekin jaso bazuten ere, nesketan hiruugarren izan zen Maddi Otaegi neskalariari eman zioten, 40 minututan egin zuten Otaegi goera.

testik hasi beharko du lehiatzen hemendik aurrera. Horiak hirurak dira orain sailkapeneko lehen hirurak.

V. Zaldi Lasterketak ikusmin handia piztu zuen igandean herrian. Antolatzaileen esanetan, emakumezko gorak izan ziren proba ikusten, eta giro onean jarraitu zuten zaldien eta zaldunen lana. Abuztuaren 7an izango da datorren zaldi lasterketa, Aian.

Azken egunean ere jai giroa

Igandekoak trikitilarien doinuak bukatu zituzten asteasuarrak. Batzuk astelehen goizaldera arte luzatu zuten eguna, eta besteek lo egin ondoren ekin zituzten jaietako azken egunari. Goizko meza nagusiaren ostean hamalakeko egin zuten herriarek atzo lehenik, eta bazkal aurretik bailarakoen arteko herri kiroletan parte harteko aukera izan zuten.

Bi taldeetan banatu ziren parte-hartzaileak. Asteasuako ziren guztiak, eta elkarren artean egin zuten lehia. Harri jasotzen, trontzan, tingan, sokatiran, koofoi apustuan, askotariko kirolatan parte hartu ahal izan zuten denek. Lagun artean, baina nor baino nor aritu ziren auzotarrak atzokoan.

Kirola egin ostean atsedean hartu behar, eta Kupaletako denborakoa saioa izan zen Santa Marinan bildu zirenen gozameneko. Matxortia eta Zeherto bertsoariak ere aritu ziren lanean, eta bazkalosteko kalejirarekin herria berriz ere girotuta, Tranpazuloren jaitsierak eman zion festari bukaera.

ALEGIA • KARMENAK

Azken egunekoak ere giro bikainean joan omen dira

Bai jai alternatiboek bai ofizialek eman dute eman beharrekoak; bukatu dira herriko festak

I. ETXEBESTE

Atzokoan ez zen giro izango Alegian. Jaiak amaitu, eta ajea pasatu ezunik izango ziren batzuk, eta, beste batzuk, ordea, lanera bueltatu beharrez. Kontua da Joan den ostegunean hasi, eta berresguru arte irau duen asteburu luzea jai giroan pasatu dutela alegiarrek, eta festa egunak bukatu zaitzela dagoeneko. Herriko jaiak, karmenak, amaitu direla, alegia.

Asko eta asko izan dira lau egunotan herriarrek —eta kanpotik hara joandakoak— aukeran izan dituzten ekitaldiak. Festa ofizialeko antolatzaileek, udal ordezkariek, antolatzaileak makina bat izan dira, eta jai alternatiboetakoak gutxiago ez. Herrikoak bazu, jende andana bilzeaz lortu zuten, gainera: larunbateko herri kirol jaiak, esate baterako, Alegiar askoren aurrean lortu zuen Aimar Irigoyen errejidarrak aurretik Muelho Sarrialegi herri-jaietarako leizarrak zekuan marka haustea.

Bikain joan ziren ordua artekoak, eta azken egunekoak ere lido beretik joan omen dira. Egitarau oporaz zuten antolatuta jai ofizialeko arduradunak goizetik hasita; herriko txistuarekin eta trikitilarien diana, Giroarte dultzaina taldea, Scalextric zirkulua, galtero bandaren kalejira... Arratsaldean, berriz, pilota partiduek hartu zuten txanda. Afizionatuetan, igandean lehiatzaileak ziren Ugaitz Zienbales eta Iokin Argote Mikel Bellooren eta Jabi Oreizaren aurka, baina larunbat hantzen jokatu zuten azkenean, lehen biloketara irabazi zuten 22-19. Profesionalen artekoak igandean bertan izan ziren: Iker Arretxe eta Oier Mendizabal izan ziren nor baino nor Julien Riegei Bi-ren eta Escudorosen aurrean, eta lehenik irabazi zuten, 22-11. Trikitilariak alaituta txintxarriaren erreteak eman ziren buakera auzoteko jai ofizialek.

Jai alternatiboetako antolatzaileek, bestealde, ume jolasak prestatu zituzten igandean arratsaldeko txintxarrietan. May barre eragilearen saioa izan zen ondoren, eta zahagiar doak hantzen hasi zuten gaur. Herriko bertsoariaren emandariarekin ere izan zuten barre egiteko aukera. Felix Izantziarenak azken saioa egin zuten, eta bere



Txintxarriaren erretearekin eman zuten alegiarrek igandean herriko jaiak amaitu. I. GARCIA



Zaren bezalakoak zarela, orain gehiago dugu zuretzat.

Kutxan oraindik eta inbertsio-akera gehiago eskaintzen ari gara. Orain, **Inbertsio-Fondo KUTXADINAMIKOAK** aurkezten dizugu. **KutxaGest-eko gure adituek modu aktiboan kudeatzeko** liru fondo berri dira, eta heburu nagus bat dute: zuretzako emaitza onenak eskuratzeko.

Inbertsio-Fondo KUTXADINAMIKOAK

- ➔ Mundu osoko merkaturatan inbertitutako digu zure dirua, uneko **aukera guztiak** etekina atara diezazuzten.
- ➔ 3 aukera dituzu haustzeko moduan, **errentagarritasunari** eta onartzen duzun **arriku kontrolatuari** dagozkiez.
- ➔ **Eta dirua zure esku** izango duzu, nahi duzunean.

Zenbat inbertitu nahi duzun eta gehien interesatzen zaizun Fondo-mota zeta den beretik ez duzu erabaki behar; Geuk egingo dugu gainerako guztia.

KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK

kutxa
zure diruaren balio erantsia

www.kutxa.net

ZIZURKIL ▶ KIROLAK

Erasun garaile Olasagastiren aurka buruturiko desafioan

Duela 15 urteko apustuko emaitzari buelta ematea lortu zuen zizurkildarrak



Olasagasti igeldoarra eta Erasun zizurkildarra aizkoran, igandeko desafioan. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

INIÑO TERRADILLOS

Aspaldian ikusi den apusturik handienean Juan Manuel Erasun izan zen garailea igandean Andoainen jokatuako apustuan. Zizurkildarra eta Olasagasti igeldoarra aritu ziren nor

baino nor eta duela hamabost urte gertatu ez bezala, igandean Erasunek hartu zuen mendean Olasagasti.

Nabaria zen horrelakoak ez direla egunero ikusten eta ikusiko, jendetza —3.000 lagun inguru— bildu baitzen Andoain-

go Garateko belardietan. Eta eguraldia ere aproposa izan zen kirolariek egin behar zuten lanerako. Hain zuzen ere, aizkorarekin 20 kanaerdiko moztu behar zituzten lehendabizi eta ondoren bi ordu bete arte seguru aritu behar ziren. Lan hori

egokien egiten zuenak alde aurretik adosturiko 12.000 euroak eskuratuko zituen.

Olasagastik aizkoran zortzi edo bederlatzi minutuko aldea ateratzen bazion apustua bereztat izango zela azaldu zuten aurrez bi kirolariek, baina ez zen horrela izan. Aldea handiagoa izan zen, ia hamabi minutu atera baitzizkion igeldoarrak zizurkildarrari 20 kanaerdiko lana burututa. Proba hasi aurretik dirua Erasunen alde bazegoen ere, une horretan Olasagastiren alde jarri zen, baina segituan bueltatu zen lehengokora. Izan ere, Erasunek aizkora lana bukatu ondoren —tartean enborekin hanka sartzeren bat ere izan zen— gogor ekin zion segarekin eta segituan hartu zion aurrea igeldokoari. Azkenean, Erasunek 2.709 kilo belar moztu zituen eta Olasagastik, berriz, 2.573 kilo, 136 kiloko aldea lortu zuen, beraz.

JUAN MANUEL ERASUN ▶ SEGALARIA ETA AIZKOLARIA

«Ohore handia izan da niretzat apustu historiko baten irabazle izatea»

Juan Manuel Erasun zizurkildarrekin aritu da HIRZA solasean apustuaren eguna igaro ondoren, eta haren inguruko inguruko balorazioa egin dio. **Nola sentitzen zara horrelako apustu handi bat irabazi eta gero?**

Oso gustura sentitzen naiz. Igandekoa bezalako apustu historiko baten irabazle izatea ohore handia da izan da niretzat.

Zein da desafioaren balorazioa?

Aizkoran hasi eta lehenengo lau enbor moztu arte nahiko parekatuta ibili ginen, baina handik aurrera bajualdia izan nuen. Urduri jarri nintzen eta blokeatu egin nintzen. Une horiek oso txarrak izan ziren niretzat, nire buruarekin hase-rreru egin nintzen. Gero, ordea, buruari gogor egin nion eta oso erritmo handiarekin hasi

nintzen segan, eta galdutakoa errekuperatu ahal izan nuen.

Tartean hanka sartzerik ere izan zen.

Bai, hala da. Nik orain arte izan den bezala egin nuen, alde egokitik hasi nintzela pentsatuz, baina bere enborekin moztzen hasi nintzen eta segituan aldatu egin genuen.

Duela 15 urte bestelakoa izan zen emaitza.

Bai, eta arantza moduko bat

nuela esan daiteke, baina kentzea lortu dut.

Apustua irabazi ondoren zein da zure hurrengo erronka?

Lasai egoteko hartuko ditut orain egun batzuk, 10 hilabete izan dira eguneroko lanean eta lasaitasuna behar dut orain. Bestalde, datorren igandean izango den Gipuzkoako Segara Txapelketako finalean eta ondoren Euskadiko finalerdietan arko naiz. ◀

Urteurrena ▶

Martin Mujika Beristain
(1. urteurrena)



Urak dakarrena
urak daroa,
Zuk emandakoa
gurekin geldituko da.

Etxekoak

BEASAIN, 2005eko uztailearen 19a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio berogatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

IBARRA ▶

Koadrila Eguneko zikiro jateko txartelak

Datorren abuztuaren 28an ospatuko da Ibarra jaien barnean Koadrilaren Eguna, eta besteak beste zikiro jatea egingo dute. Bertarako txartelak uztailearen 21ean eta abuztuaren 4an jarriko dituzte salgai 20:00etatik 21:00etara Sendi Ekintzan 21 eurotan. Abuztuaren 4tik aurrera 30 euroren truke eskuratu ahalgo dira ohiko tabernetan.

ANOETA ▶

Agirrezabala garaile Mendiko Criteriumean

Herenegun Elgetan jokatu zen Euskadiko XXL Mendiko Txirringularitza Criteriumean Joseba Agirrezabalak (Andaluzia-Paul Versans) irabazi zuen. Anoetarrak 124 kilometroko proba 3 ordu, 19 minutu eta 10 segundotan amaitu zuen.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423
▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Orea. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autobus.: 948 221015

▶ Taxis: 670420

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egotiza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

PILOTA ▶

Txapelketatik txapelketara, aurrera doaz

Errenteriakoan finalean dira Aurrerako ordezkariak, bi mailetan

JAIONE ASTIBIA

Gaur hangoan eta bihar hemengoan, egunero dituzte pilota partiduak, banaka, nahiz bikoteka, kaiolan zein osoan: Aurrera pilota eskola ordezkatzuz dabil txapelketa desberdinetan eta maila guztietan.

Hauetako batean, jada finalerako izendatu dituzte finalistak. Errenteriako Txapelketa asteburu honetan jokatu baitituzte finalerdiak eta emaitza ezin hobeekin etxekoak irabazi zuten azken partidurako txartela, bi mailetan gutxienez.

Horrela, afizionatutan, Ibai Bengoetxea leitzarrak eta Patxi Ruiz de Larramendik, 22 eta 8 irabazi ziren Irureta-Gonzalezi, biak ordezkokoak —Erroizenea-Argote baitziren aritzeokoa—. Eta markagailua lekuko, erraz samar aritu ziren lanean oraingoan Aurrerakoak, eta afizionatuen mailan finalera joateko baliatu zuten egokiera eta baita txartela eskuratu ere.

Modu berean egin zuten, bai-na gazteen mailan, Mikel Iriarte

leitzarrak eta Mendiluzek, hau Narbarteren ordezkoi aurrelaria. Zabala-Legarreta bikoa justu tanto erditan utzi baitzituzten, 22 eta 11 irabaziz. Aurrerako bi bikote hauek, ostiral honetan bertan dute jokatzeko finala, baina oraindik aurrerakoak zein dituzten ez omen dakite, halaxe jakinarazi dute. Aipatu, lehenengo astean Mikel Olazabal aresoarrak eta Tabarrek ere finalerdietako partidua jokatzeko zutela, baina partidua baino ordu batzuk lehenago eskuan min hartu omen zuten Tabarrek eta Olazabalek ez zuten jokatzeko finalerdia jokatu gabe baina, galdutzat joz.

Bestalde, Antiguako Txapelketa ligaxka jokatzeko ari dira. Oraingoz Aurreratik Mikel Iriartek bakarrik jokatu du, Andreeu aurrean duela eta hauek gutxienez aldearekin irabazi egin zuten Galartza-Aldaperen aurka, oso partidu gogorra eta luzea egin ondoren. gainerako ordezkariak hurrengo asteetan jokatu dute.

LEITZA ▶

UPNko buruek gogoan izan dute Mujika igandean

Miguel Sanzek (UPN) Aralarko ordezkariak ez bertaratu izana kritikatu omen zuten

J. ASTIBIA

UPNko buruek, bere heriotzaren laugarren urteurrena zela eta —uztailaren 14ean bete zen— igande eguerdian egin zioten Jose Jabier Mujikari oroimenezko ekitaldia, Nafarroako Lehendakari den Miguel Sanz bera eta beste hainbat kontseilari bertan zirela, guztiak alderdi bereko kideak.

Sanzek ekitaldian hitza hartutakoan, «duela 4 urte baino jende gehiago» zirela adierazi omen zuten, eta bide batez, «Aralarreko ordezkariak bertaratu ez izana» kritikatu, «duela 4 urte ere egon ez ziren moduan», nabarmenduz. UPNko Sanzek adierazi omen zuten, Patxi Saenz alkateak, Aralar alderdikoa, hara ez bertaratzeko argudiatu zuena «UPNrekin banderen gaia dela eta minutu egotea» izan omen zen, «Mujika banderengatik ez baino, askatasuna, justizia eta bakea babestegatik hila» zutela erantzunez.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Santa Krutzeko ermitan erromeria eginen dute

Leitzako jubilatuen elkarte ari da prestaketa lanetan; Santio egunean egiteko asmoa dute



Santa Krutzeko ermita, pagodiaren ertzean dago. JAIONE ASTIBIA

J. ASTIBIA

Urtero egin ohi da, lehentxeago edo beranduego Santa Krutzeko ermitako erromeria, udako tenore hauetan. Aurretik ere deialdia egin dute.

Hilaren 25a, heldu den astelehena, jai denaz baliatuz, Leitzako jubilatuen elkarteak egun horixe aukeratu du aipatu erromeri eguna antolatzeko eta herritar guztiei egin diete bertan parte hartzeko deialdia, Gorritaran aldera nahiz Oialde eta herrialdera ere ikuspegi zoragarriak dituen paraje horretan egun-pasa egitera. Izan ere, horixe da beren asmoa.

13:00etan, bertako Santa Krutz ermitan meza emanen dute, urtean behin izaten dena gainera, eta ondoren bazkaria, norberak eramandakoa,

mahaiak eta aulkiak antolatuak jarriko omen dituelarik. Erantsi zuten, «edaria eta bazkalondokoak» ere, hots postrea, kafea eta ttantta, hauen esku joanen omen dira. Eta ondoren, erromeria, pagodiaren artean, larratxean.

Parte hartu nahiz gero, izena lehenbailehen ematea eskatu zuten, kopuruak aurrez jakitu beharrezko zaielako, «batez ere zenbat kafe eta, prestatu erabakitze» ziotenez.

Bide batez, bertara oinez igo ezin direnentzat garraioa ziurtatzeko, «dur otakoa ibilgailuen jabe diren herritarrei, ezin duak hara bertaratzeko ahalegina egin dezaten», eskatu zieten. Horretarako prest daudenean ere, antolakuntza-koei jakinaraztea eskertuko luketela adierazi zuten, bestalde.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Abaltzisketa. Eraikuntza berriko etxe abikiak, terraza eta lursailarekin. Bista ederrak Txindokira eta bailarara.

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai, ikusteko modukoa, bista ederrak.

Asteasu. Pabilioia salgai. 1050 m² + 250 m²-ko entreplanta, egokitua jangela, sukalde, bulego, komunak ...

Oso egoera onean, sarrera onak trailerrentzako, zamalanetarako kaiarekin.

Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra, oso egoera onean.

Errazkin (Nafarroa). Berritzeko dagoen borda salgai. 140 m²-ko bi solairu eta 1.200 m²-ko lursaila.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ibarra. Euskal Herria kalearen hasieran. 4 logela, sukalde, egongela eta bainugela.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ibarra. San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela.

Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreinatzeko !!!

Ikaztegieta. 6 etxe atxikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Ikaztegieta. Etxea atxikia salgai. Lorategi eguzkitsua.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

Tolosa. Arostegieta. Ganbara bizitzen jartzeko modukoa. 111.790 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Azkeneko pisua guztiz berritua. Terrazarekin. 208.430 euro. Ikustekoa !!!

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Alde Zaharra. 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela dituen etxe polita erabat berritua.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Benta Aundi. Duplex polita salgai su baju eta guzti.

Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukalde, egongela, bainugela. Guztiz berritua.

Tolosa. Amaroz auzoan hainbat etxebizitza salgai igogailuarekin. Aukera paregabeak!

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko,

guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

Ikusteko modukoa !!!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukalde, 2 bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behian: garajea, komuna eta txokoa.

Tolosa. Larramendi. 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela.

Trasteleku ederra ganbaran.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra.

Ezin hobeto !!!

Tolosa. lurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran.

Egoera bikaina.

Tolosa. Ibai aldera eta hegoaldera.

4 logela, bi bainugela. Trasteleku eta garajea. Aukera paregabea !!!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m²-ko bi etxebizitza bikain. Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailu eta berokuntzarekin !!!

Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126 m²-ko etxebizitza berritua

garajearekin.

Tolosa. Gernikako Arbola. 140 m²-ko etxe paregabea salgai terraza eta igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai.

Ikusgarria !!!

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. 2 logela, egongela, sukalde, bainugela eta terraza. 167.080 euro.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxe-ondo. Pisua garajearekin. Pisua 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m²-koa, karabanentzat egokia.

Villabona. Kale Berria. 34 m²-ko garajea itxia salmantan.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Altzo. San Inazio jaien barruan, uztailaren 29an egingo duten zikro jaterako txartelak salgai daude Arandia jatetxean 18 eurotan.

Amasa. Ostiralean Kultur Etxearen inaugurazio herritarra egingo dute 20:00etan. Ondoren Iturri goxo jatetxe berriak prestatutako afari herrikoirako izena emateko Kultur Etxeko atean aurkituko du modua. Osteguna baino lehen eman behar da izena.

Anoeta. Pabxi Sanzek Eguberrietan kantatzen eta dantza sokan ateratako argazkiak erakutsiko ditu 19:00etan Gaztetxean.

Anoeta. Frida bideoaren emanaldia Gaztetxean bihar 22:30ean.

Berastegi. Gaztainondo jubilatuen elkartetik jakinarazten dute podologoaren bisita eguna uztailaren 30ean izango dela. Aurrez ordua hartzeko elkartera jo behar da.

Ibarra. ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek deitu 635 00 94 96 telefonora tramitazioa berriro egiteko.

Tolosa. Paleta txapelketa Berazubini. Gaur 10:00etan Apeztegia-Maiza Yugueros-Aldazabalen aurka eta Sarasua-Txapartegi Eizmendiarandien aurka.

Tolosa. Tolargik argindarra moztuko du gaur eta bihar 23:00etatik 24:00etara, subestazio berriaren egiaztapen lanak direla eta.

IRTEERAK

Berastegi. Gaztainondo jubilatuen elkarteak uztailaren 21ean Calahorrara irteera antolatuko du. Izen-ematea, elkartearen bertan edo 943 68 32 02 telefonon.

Tolosa. Iturriza elkarteak Brioneseko Ardoaren Museora irteera antolatuko du abuztuaren 5erako. Izen-ematea, elkartearen (Euskal Herria plaza).

Tolosa. Irailaren 1etik 7ra Extremadura eta Portugalera irteera turistiko-kulturala antolatuko du Harizpe jubilatuen elkarteak. Izen-ematea, elkartearen 445 eurotan (bazkide ez direnek 460). Caceres, Fatima, Alcobaca



Hasi dira Leidor zinema berritzeko lanak

HIRIGINTZA ▶ Egun hauetan hasi dira Tolosako Leidor zinema berritzeko lanak. Jakina denez, uztailaren lehen asteburuan izan ziren azken emanaldiak, zinemazale talde batek proposatutako filmeenak eta ondoren zinemak itxi egin zituen

ateak. Orain hasi dira zinema berritzeko lanak —soinua eta eszenatokia hobetzea batez ere— eta urtebete baino gehiago iraungo dutela uste dute. 2006ko Abesbatza Lehiaketarako lanak bukatuta egotea espero dute. JOXEMI SAIZAR

eta Costa Caparica bisitatuko dute.

Tolosa. Picos de Europa (Kantabria) mendi irteera antolatuko du Alpino Uzturrek hilaren 23, 24 eta 25erako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5. 943 65 27 89).

Tolosa. Oargi mendi elkarteak Pirinioetara mendi irteera eta arroila jaitziera antolatuko du hilaren 22tik 25era. Izen-ematea 637 83 03 80 telefonon.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalaretta 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: eguraldia, Hitza, Bakartxo Tejeria hitzarmenez, herri kirolak, agenda, Sahararik.com, azoka, lehiaketa.
19:00. Errepikapena.
21:00. Gora Eusciadi chistulari.
22:00-23:00. Street Noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Alaitz Azpiroz Balerdi
(Lizartza). Gaur 5 urte. Zorionak familia guztiaren partetik, batez ere izaro eta Eriauz.

HITZA,
zorian agurren tartea

Mesedez,
argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

EUSKAL TONBOLA 1€

DUDak, kamera digitalak, DVD sortak, MP3 irailargailuak, mobilak

Talasterapia, Alariak, Asteburuak landetxeetan, Kruzero bidaiak

...eta chunka sari gehiago!

GOIERRIA, UROLA GARAIAN
TOLOSALDEAN eta LEITZALDEAN
EKAINAREN 15etik
UZTAILAREN 31ra

Zure herriko tabernetan salgai!

EROSKI bidaiak, berria, liitza, EROSKI